

Ingurumen Buletina

- 1. Kapitalismoaren ondorioak ingurumenean: zor ekologikoa**
- 2. Hondakinen Gestioa Nafarroan**
- 3. Pasaiaiko kanpo portua hondoratzen ari da gizartearen presioari esker**
- 4. Japoniak energia nuklearrik gabe funtzionatzen du jada**
- 5. Zero Zabor filosofiaren aldeko kanpaina**

1. Kapitalismoaren ondorioak
ingurumenean: zor ekologikoa

Aurreko buletinetan mundu mailako ingurumen krisiaz hitz egin dugu, zein krisi ekonomikoarekin eta sozialarekin estuki loturik dagoen. Egoera hau sistema kapitalistaren ondorioa da. Daukagun alternatiba bakarria sistema aldatzea da, baina horretarako kapitalismoak suposatu duena aztertu behar da.

Sistema honen hitz gakoetako bat hazkundea da. Ekonomia baliabide natural mugatuaren esplotazioan, eraldatzean, kontsumoan eta hondakin bihurtzean dago oinarrituta. Kapitalismoak hazkunde mugagabearen aukera saldu nahi digu, baina hau ezinezkoa da, esan bezala, baliabideak mugatuak direlako. Planetak izan duen bidegurutzeko zailenean gaude eta oraindik ere irtenbidea hazkundean dagoela esaten digute. Ez, irtenbidea aberastasunaren banaketa justuan eta ditugun baliabideekin funtzionatzean dago eta ez ezer aldatzen ez duen hazkundean.

Kapitalismoak ingurumenean eragiten dituen kalteak begi-bistakoak dira ingurura begiratuz gero. Arnasten dugun airea, edaten dugun ura, jaten ditugun elikagaiak,... kutsatuta daude. Sufritzen ditugun gaixotasun asko kutsadura honen ondorio dira. Azpiegituren eraikuntzak eta hirigintza bortitzak lurraldea suntsitu dute, paisaia naturalak desagertzen ari dira, hitz batean, bizi kalitatea galtzen ari gara. Hondakinen gehiegi sortzearen arazoa ere oso gertutik ikusten ari gara erraustegiak eraikitzearen mehatxua dela eta. Eta egunero datozkigun beste arazo pilo bat. Ondorio hauek dira urrats ekologikoa deritzoguna, lurraldean uzten dugun urrats ekologikoa.

Baina badira beste ondorio batzuk zuzenean ikusten ez ditugunak, oso urruti

agertzen baitira, eta ikusten ez duguna ez dugu kontuan hartzen.

Guk gure lurraldean ez ditugu nahikoa baliabide natural bizi garen bezala bizitzeko, horregatik beste herrialde batzuetatik ekartzen ditugu, gehienetan hegoaldeko herrietatik (Latinoamerika, Afrika,...). Baliabide hauek modu guztiz jasanekin eta miserablean esplotatzen dira ondorio izugarriak eraginez: kutsadura, ondare naturalaren suntsitzea, nekazariei lurrak kentzea, pobrezia, gosea, gaixotasunak, hilketak, nahitaezko migrazioak, eskulanaren esklabotza, herrialde aberatseneko menpekotasuna, kanpo zorra,... Hau eragiten duten enpresa transnazionalak estatubatuarra, Repsol YPF bezalako europarrak, edo Iberdrola bezalako euskaldunak dira. Enpresa hauek baliabide naturalak oso prezio baxuan ateratzen dituzte herrialde hauetatik, ez baitira eragiten dituzten kalte ekonomiko, sozial eta ingurumeneko arduratzen. Eta ekiditen dituzten ardura eta kalte horiek dira zor ekologikoa deritzoguna.

Zor ekologikoa zera da: Iparraldeko herrialde industrializatuek eta bertako instituzioek, elite ekonomikoak eta enpresek duten ardura baliabide naturalen jabetze eta kontrolagatik, eta baita beraien produkzio eta kontsumo ereduak eragindako planetaren suntsiketarik ere. Honek eragin zuzena du tokian tokiko garapenean eta gizon-emakumeon etorkizunean. Definizio honetan oinarriturik, Hegoaldeko herrialdeak dira hartzekodunak eta herrialde aberatsenak gara zordunak. Zor honen oinarrian daude gure eredu industrial, gehiegizko kontsumoa, hondakinen gehiegizko sorrera, berotegi efektuko gasen emisioak, eta halaber, kapitalismoa eta merkatu librea.

Gu ere, herrialde hauetako hiritar bezala eta baliabide hauen kontsumitzaile bezala, zor

ekologikoaren arduradun eta zordun gara. gure ongizatea beste batzuen ongizatearen kontura. Errealitate honek gure garapen eredia berriz pentsatzeko eta aldatzeko balio behar digu.

2. Hondakinen Gestioa Nafarroan

2010eko abenduan onartu zen Nafarroako Hondakinen Kudeaketarako Plan Orokorra. Momentu hartan ELAk planaren balorazioa egin zuen esanez Nafarroaren etorkizuna hipotekatuko zuela ekonomikoki, sozialki eta ingurumen aldetik. Hondakin egoera tamalgarrria zen 2010ean, eta orain ere horrela izaten jarraitzen du:

- Hiri hondakin solidoak (HHS) %45,32 hazi dira 1996tik 2008ra, kontsumoaren hazkunde izugarriaren eta ekoizpen eta banaketa ereduaren ondorioz.
- 2008an hiri hondakinen %31 soilik birziklatu ziren. Birziklatu eta nekazaritzarako ongarri (konposta) bihurtu daitezkeen hondakin organikoak Montejurrako mankomunitateak bakarrik jasotzen dira bereztuta konposta egiteko. Erriberan hondakin organikoek biometanizazio prozesu bat aplikatzen zaie gasa lortzeko. Guztira hiri hondakinen %10ari aplikatzen zaizkio bi tratamendu hauek, beraz hondakin kantitate handia da birziklatzen ez dena. Birziklatu daitezkeen hondakin organikoek %50 baino gehiagok zabortegean bukatzen dute.
- Nafarroako udalerrri batzuetan oraindik ez da plastiko ontzien bilketa bereztua egiten. Beira eta papera soilik biltzen da bereztuta, gainontzeko guztia edukiontzi berean jasotzen da. Sistema honek ontziak eta hondakin organikoak birziklatzea eragozten du, hondakinen zati handiena osatzen dute hauek. Hiri hondakin solidoek irtenbide egokia ematea bilketa sistema egokia ezartzean hasten da.

Egoera honetan, Nafarroako Hondakinen Kudeaketarako Plan Integralak ezarritako helburuak hauek dira:

- 3Rak deitzen direnak (murriztu, berrerabili eta birziklatu) dira lehentasun, zabor bilketa bereztua udalerrri guztiera heltzeko ekipamendua zabalduz.
- Hondakin organikoek kudeaketa sistema lurralde osora zabaldu, orain ez baitago guztia tratatzeko gaitasunik. Bereztuta jasotzen den organiko kopurua gehitu egin behar da auzo eta etxeetan konpostajea bultzatuz eta etxeetako hondakin organikoak bereztuta jasoz.
- Biometanizaziorako instalazioetan eta zabortegean atera daitezkeen biogasaren aprobetxamendu energetikoa.
- Hondakinen balorizazio energetikoa (erraustegia) ezarri birziklatu ezin izan diren hondakinentzat, zabortegeetan hondakin gutxiago pilatu ahal izateko.

ELAn erraustegiak baztertzen ditugu, jartzen zaien izena edozein dela ere, horregatik hondakinen kudeaketak duen garrantzia eta suposatzen duen arriskuaz informatzeko kanpaina egin genuen. Nafarroan eztabaida irekia dago, Parlamentuan ere gai hau eztabaidatu da. Martxoan gobernuak erraustegi bat eraikitzea baztertu zuen eta orain alternatiba baten bila dabilta. ELAn argi dugu alternatiba dena birziklatu eta zaborrik erretzen ez duen Zero Zabor filosofia izan behar dela. Oraindik asko dugu egiteko horretara iristeko. Nafarroako gobernuak oraindik okerrago dago, ez baitu Olaztiko Portland zementu fabrika zaborra erretzea baztertzen. Arrazoi guzti hauengatik ELAk zera exijitzen du:

- Printzipio bakartzat 3Rak izatea: murriztu, berrerabili eta birziklatu. Hauen aldeko politikak bultzatzea.

- "Atez atekoa" bezalako hondakin bilketa bereizturako sistema eraginkorra ezartzea
- "Etxeko konpostajea" bultzatzea
- Zero Zabor helburua betetzeko hondakin mota guztien tratamendurako instalazioak eraikitzea
- Behin betiko erraustegia baztertzea

3. Pasaiaiko kanpo portua hondoratzen ari da gizartearen presioari esker

Denak ez dira albiste txarrak krisi eta murrizketa sasoi honetan. Pasaiaiko kanpo portuak geldialdi garrantzitsua izan du eta badirudi azkenean ezerezean geldituko dela. Gizarteak urte hauetan zehar eginiko borrokari eta presioari esker proiektua bertan behera geratzeko zorian dago. Prozesua oso luzea izan da baina borrokek merezi izan du.

Proiektu ezberdinak, aldaketak eta gizarte mugimendu eta sindikatuek aurkezturiko alegazioak (ELArenak barne) izan diren epe luze honen ondoren iritsi gara momentu honetara. Ingurumen Ministerioak eman behar dio onespena proiektuari baina ministerioak berak dagoeneko esana du proiektua Jaizkibelgo babes eremuarekin bateraezina dela. Pasaiaiko Portuko Agintaritzak 2010ean aurkeztutako Ingurumen Iraunkortasun Txostenari erantzuterakoan proiektuak ingurumenari modu atzeraezinean eragingo diola esan zuen. Proiektuaren bideragarritasun plana ere zalantzan jarri du finantziazioa bermatuta ez dagoela esanez. Hau begi-bistakoa da, are gehiago krisi ekonomiko garaian eta higiezin burbuila jausi ondoren, baina kanpo portuaren bultzatzaileek proiektua bideragarria eta jasangarria dela esaten jarraitzen dute, nahiz eta nola ordainduko den zehaztu gabe jarraitzen duten.

Proiektuak gero eta jarraitzaile gutxiago ditu. PP eta PNV hasi dira jada egoera ekonomiko

honetan kanpo portua ezin dela eraiki esaten eta baliabideak optimizatzeko Bilborako eta Pasaiaiko Portu Agintaritza bakarria sortzea proposatzen.

Hauxe bera egon gara eskatzen proiektu suntsitzaile honen kontrako borroka urteotan, eta arduragabe deitzen ziguten Pasaiaiko portuaren akabera izango zela argudiatuz. Denborak bakoitza bere lekuan jartzen du, eta guri bide onean goazela erakutsi digu. bide zuzena da lurraldea suntsitu eta gastu sozialera bideratu beharreko diru publikoa xahutzen duten azpiegitura handien aurka agertzea.

4. Japoniak energia nuklearrik gabe funtzionatzen du jada

Energia nuklearraren aldekoek energia mota hau baztertzeak "hondamendia" suposatuko lukeela diote, baina ez dute esaten munduan herrialde asko direla berau gabe funtzionatzen dutenak eta beste asko zentral nuklearrak inongo arazorik gabe ixten ari direla. Beste kontu bat da zentralen jabe diren enpresek ez dutela horrenbeste etekin aterako.

Adibiderik onena eta garrantzitsuenak Japoniakoa da. Fukushimako istripu nuklearraren ondoren japoniarrak beste modu batean hasi dira ikusten energia nuklearra, benetan dena moduan, osasuna eta segurtasunerako arrisku bezala eta benetako beharra enpresek bakarrik dutela, beraiek ez dutela energia hori behar.

2011ko apirilean Fukushiman gertatuaren ondorik, Japoniak 17 erreaktore geldiarazi zituen, batzuk kalteak izan zituztelako eta beste batzuk lurrikara arrisku handiko zonaldeetan zeudelako. Gainontzekoak erregaia kargatzeko geldialdi teknikoak egitea egokitu zaienean gelditu dira, eta ez dira berriro martxan jarri. Maiatzaren 5ean itzali zen azken zentrala eta herrialdea

energia nuklearrik gabe geratu zen lehen aldiz 1970etik. Japonia zen orain arte munduko hirugarren herri nuklearizatuena Frantzia eta EEBBen ondoren, kontsumitutako energiaren %30 baitzetorren energia nuklearretik. Japonia da energia nuklearrik gabe bizi daitekeela baieztatzen duen adibiderik argiena. Bertako hiritarrak ere jarraitu beharreko eredia dira, Fukushima gertakariaren ondorioak jasan eta zentralak ixtea exijitu ondoren, beraien energia kontsumoa murriztu baitute bizitzen ari diren trantsizioa errazteko.

Gu garaiz gabiltza horrelako istripuak ez gertatzeko eta gure energia kontsumoa murrizteko horrela zentralak ixteko aitzakiarik ez dute edukiko, ez Garoña ixteko, ez estatuko beste zentralak ixteko. Ez dezagun aukera hau pasatzen utzi. Nuklearrik ez!

5. Zero Zabor filosofiaren aldeko kanpaina

2010ean atez ateko zabor bilketa ezagutu genuenetik, ELA Zero Zabor filosofiaren alde agertu da. Jarraitu behar dugun bidea hori dela uste dugu, hondakinak gestionatzeko sistema jasangarriena baita ikuspuntu ekonomiko, sozial eta ingurumenekotik. Atez ateko zabor bilketaren alde ere agertu gara, ezagutzen dugun bilketa sistemarik eraginkorrena baita birziklatze tasak igo eta 100% birziklatzeko helburura iritsi ahal izateko. Baina sindikatua izanik gaur egun zabor bilketan ari diren langileen lan eskubideak eta zerbitzura gehituko direnenak defendatuko ditugu.

Egin [klik hemen](#) kanpaina ikusteko.